



## ARRANKUDIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA

1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa



<b>Dokumentuaren izenburua:</b>	<b>ARRANKUDIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa</b>
<b>UT21 Nerbioi-Ibaizabal Laguntza teknikoa:</b>	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
<b>Jasotzailea:</b>	<b>ARRANKUDIAGA</b>
<b>Parte hartu duten udalak:</b>	Arakaldoko udala Arrankudiagako udala Arrigorriagako udala Etxebarriko udala Galdakaoko udala Orozkoko udala Ugao-Miraballeseko udala Urduñako udala Zaratamoko udala Zeberioako udala
<b>Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa</b>	UT21 Nerbioi-Ibaizabal
<b>Orrialdeak:</b>	38
<b>Hizkuntza:</b>	Euskara
<b>Bertsioa:</b>	Behin betikoa
<b>Entrega data:</b>	2012ko iraila

## AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	6
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA .....	8
HELBURUAK .....	9
LAN PROGRAMA.....	10
ARLO TEMATIKOAK.....	11
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK .....	12



## LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, Diagnostikoaren ondorio nagusienak adierazten dira:

### GIZARTEA ETA EKONOMIA

Arrankudiagak azken urteetan gertuko udalerrietatik **biztanleria erakartzea** lortu du, azken hamarkadetan pairatutako biztanle beherakada gaindituz eta biztanleria gaztetzeari lortuz, nahiz eta pertsona helduen kopurua nabarmena izaten jarraitu.

**Industri sektorea** da pisurik handiena duena udalerraren ekoizpenean, baina beheranzko joera batekin, bere sustapena udalerrarentzat garrantzizko estrategia izanik. Era berean, hirugarren sektorearen pixkanakako goranzko joera eta nekazaritza-sektorearen desagerpena gertatzen ari da.

Arrankudiaga Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrien artean **euskalduna den biztanleria gehien** duen hirugarren udalerrria da, baina beheranzko eboluzioa ageri du. Inguruabar honek kale eta batez ere etxeko erabilera txikiagoan du isla konparazioz, horrek esan nahi duelarik euskararen ezagutzan eta, batez ere, eguneroko bizitzako euskararen erabilera bultzatzen duten politikak bultzatuz eta aurrera eginez jarraitu beharra dagoela.

**Kirol**, eta batez ere, **kultur jardueren garapenerako guneak** egokitzea, berritzea eta balioan ipintzea udalerraren erronka garrantzitsua da eta baita antolatutako kultur eta kirol gertaeren eskaintza eta gizarte erantzun handiagoa bermatzen duen Udal eta gizarte eragileen arteko **jarduera koordinatuen** garapena ere.

Gizartearen, lanaren eta udalerraren arloetan **genero berdintasunaren** bultzadarako zeharreko ekintzen garapenarekin jarraitu eta biztanleriaren artean Informazio eta Komunikazio Teknologien ezaguera eta erabilera handiagoa lortzea dira behar bezalako gizarte ongizate bat lortu ahal izateko betetzeke dauden erronkak.

**Etxebizitzaren zaharberritzea** sustatzea eta birgaiketarako zein energi iraunkortasunerako irizpideak bultzatzea, eraikita dagoen ondarearen kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiz, etxebizitza politikaren arloan kontutan hartu beharreko lehentasunak dira. Bidenabar, etxebizitzaren alokairuaren bultzada erronka erantsia da eta, horrenbestez, eskaeraren beharrak aztertzea aurreikusita dago.

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

Arrankudiaga Nerbioi ibaiaren alboan mendi-hegal erdian kokaturiko udalerrria da, bizitegi-lurzorua bi zatitan banatua daukalarik bideetako eta trenbideetako azpiegiturak direla eta. Bere orografia dela eta, lurraldean zehar hedatuta dagoen herria da: herrigune jendetsuenen arteko distantzia luzea da, eta landa nukleoak eta etxe sakabanatuak ugariak dira. Udalerrri honetan lurzoru urbanizaezinak lurraldearen zati handia hartzen du, bere **paisaian** basoak dira gailentzen direnak eta hauetan batez ere jabego pribatukoak diren koniferoak dira nagusi.

Iraunkortasun irizpideak txertatzen jarraitzea, arkitektura-ondarearen elementuen zaharberritzea, nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babesa eta behar gehien duten auzo eta guneetan hirigintza erreformak exekutatzeko **udal planeamenduan** kontutan hartu beharreko alderdi nabarmenenak dira.

Udalerraren parte handi bat Gorbeia-Ganekogortako korridore ekologikoa eta beraren amortizazio eremuan kokaturik dago, eta Batasunaren interesekoak diren habitatak eta hezegune bat ere nabarmentzen dira. Hauen babesa, kontserbazioa eta balioan ipintzea **inguru naturalaren** antolamendu eta kudeaketarako adierazgarriak diren arloak dira.

Bere inguru funtzionalarekin dituen **errepide bidezko komunikazioak** onak dira, baina inguruko herriekin errepidezko garraio publikoak medio dituen loturak eskasak dira, bai autobus eta bai trenaren kasuan, eta horrek oinezkoen zirkulazioan eta ibilgailu pribatuarekiko alternatiboa den mugikortasunean zailtasunak ekartzen ditu.

Udalerriko puntu desberdinetara eta ekipamenduetara iristeko **mugikortasun** baldintzak hobegarriak dira. Udalak aurreikusita dauka oinezkoen eta bizikletazkoen mugikortasunari loturiko azpiegituren hobekuntzarako jarduerak nahiz ekimenak bultzatzea eta baita ere udaleko autobus zerbitzuaren bultzada.

### BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Arrankudiaga zuzenean arduratzen da **uraren zikloaren kudeaketaz**, udalerriak duen erronka handietako bat izanik, non kontsumitutako eta banatutako ur bolumenen erregistroa eta kontrola hobetuz, horniketaren optimizaziora, kalitatearen bermakuntzara eta saneamendura bideratu behar diren esfortzuak, hondakin-uren tratamendua hobetuz.

**Urteko biztanleko hondakinen sorrerak** goranzko joera erakusten du, era berean hondakinen berreskurapen portzentajea maila berdintsuan mantendu delarik azken urteetan, hondakinen murrizketan eta banaketaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitu beharra dagoen arren. Izan ere, eragile guztien sentikortzeari, herritarrei zuzenduriko neurri sustatzaileen ezarpenari, administraziok exenplu emaile gisa duen paperari eta banakako zein komunitateko konpostaje sistemen bultzadari ekin behar zaio, aldi berean informazio zehatzagoaren eskuratzea ahalbidetuz.

**Udalerraren energi egiturak**, EAEko beste udalerrri askorenaren antzekoa, erregai fosilen erabilera handia eta Berotegi Efektuko Gasei (BEG) eginiko ekarpen nabarmena dakar berekin. Beraz, arlo honetan sakontzea udalerriak duen beste erronka handietako bat da, ez soilik maila publikoan baizik eta baita maila pribatuan ere. Era horretara iturri ez berriztagarriekiko menpekotasuna murriztuko da eta BEGen murrizketari ekarpena egingo zaio. Azken urteotako energi kontsumo gero eta txikiagoa kontutan edukirik, energia berriztagarrien garapena eta kale argiztapenaren eraginkortasuna bultzatzea ibili beharreko zeregin lehenenak bihurtu dira.

### SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

**Partaidetza kultura nahiz kontzientzia komunitarioa sortzen duten partaidetza egitura berrien sendotzerantzko** bidean aurrera egitea hasiberria den prozesua da baina fruituak jasotzen ari da jada.

**Sentikortzearen, prestakuntzaren eta jardunbide egokietan** oinarritutako herritarren eta Tokiko Administrazioaren egunez eguneko ohitura aldaketa udalerraren tokiko iraunkortasun prozesuaren giltzarria da.

Burutzen ari diren politika zenbaitzuen zeharreko izaerak **departamentu arteko koordinazio eta elkarlana are gehiago indartzeko** beharra agerian uzten du.

## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21**: Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
  2. **Industriako Agenda 21**: Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
  3. **Eskolako Agenda 21**: Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
  4. **Hondakinen kudeaketa**: Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
  5. **Mugikortasun iraunkorra**: Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.
- 6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Arrankudiagako Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.



## HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitu.
- Plana iraunkortasunaren tokiko kudeaketaren bilakaerara egokitu.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrian giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutuan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berrian sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

## LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarriko metodologia “**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarriko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (\*) bitartez seinalatu dira.*)

## ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

### GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. Biztanleria
2. Ongizatea eta gizarteratzea
  - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
  - Genero berdintasuna
  - Elkarbizitza
  - Osasuna eta osasun zerbitzuak
  - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
3. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
  - Ekonomia egitura eta jarduera maila
  - Lehen sektorea
  - Bigarren sektorea
  - Zerbitzuen sektorea
  - Turismo eta ostalaritza sektorea
  - Enplegua eta lan merkatua

### NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

9. Ura
10. Hondakinak
11. Energia
12. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
13. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak
14. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa
15. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


6. Lurraldea eta plangintza
7. Natura eta bioaniztasuna
8. Mugikortasuna eta garraioa

### SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

16. Komunikazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
17. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:






- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

<p><b>BALORAZIOA</b></p>  <p><b>Ez baloragarria</b></p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak "EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa" agertzen dira.</p>
--	---











**EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK**

**GIZARTEA ETA EKONOMIA**















**1. BIZTANLERIA**


<i>Azpihermua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<b>1.1. Luraldearen testuinguruan kokatzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Biztanle dentsitatea Bizkaiko batez bestekoaren oso azpitik dago. UT 21eko dentsitate txikieneko udalerrien artean hirugarrena da eta jende gutxien bizi den eskualde honetako herrien artean bigarrena da.</li> <li>Biztanleria flotantea ez da garrantzizkotzat jotzen.</li> <li>Biztanleria finkatzeko ekimenak demografia goraka bultzatu dute azken urteetan. Etorkezinean biztanleria mantendu egingo dela aurreikusten da.</li> </ul>	✓ Ez da eskuhartzeko lehenasunezko arlorik identifikatu.
<b>1.2. Biztanleriaren bilakaera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>20 urte arteko biztanleria gaztea %19,19koa da, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko, lurralde historikoko eta erkidegoko batez bestekoen gainera.</li> <li>Biztanleriaren zaharkitze indizea nabarmenki jaitsi da 2003 eta 2011 bitartean. EAEko batez bestekoaren antzekoa eta Bizkaiko batez bestekoa baino txikiagoa.</li> </ul>	
<b>1.3. Egitura demografikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hazkunde begetatiboa aldakorra izan da azken hamar urteetan. 2009an positiboa izan zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabal, EAE eta Bizkaiko batez bestekoaren (azken hau negatiboa) gainera.</li> </ul>	
<b>1.4. Mugimendu naturala eta migratzailea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Biztanleria atzerritarra 1,75 portzentaje puntutan hazi da 2003 eta 2011 bitarte.</li> <li>Etorkezinen biztanleria 2011ean biztanleria osoaren %2,14koa da eta, oro har, ongi integraturik dago.</li> <li>2011ean duen atzerritarren biztanleria maila UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik dago.</li> <li>Kanpoko migrazio saldoa igotzen joan da 2004-2010 bitartean. Udalerrian pertsona gehiago sartu dira irten baino.</li> </ul>	
<b>1.5. Populazioaren banaketa, lurraldeka</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Bost etxebizitza gune daude. Haietan biztanleriaren % 70 gutxi gora behera bizi da. Gainontzeko biztanleria landa auzoetan bananduta dago.</li> <li>Hiri multzoaren dentsitatea 10,69 etxebizitza/ha da, UT21 Nerbioi-Ibaizabalekoaren dezente azpitikoa.</li> </ul>	

## 2. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA






Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>2.1. Gizarte arazoak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrriak ez dauka aparteko giza arazorik.</li> <li>2003 eta 2008 bitartean Oinarrizko Errentaren hartzaile ziren elkarbizitza unitateak %1,93tik %1,13ra jaitsi ziren.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Etorkinentzako arreta protokoloa ezarri.</li> </ul>
<b>2.2. Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>2011ean gizarte larrialdiko laguntza eskaera guztiak eskura zegoen aurrekontuarekin bete dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren bidean jarraitu.</li> </ul>
<b>2.3. Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrrian ez dago gizarte ekipamendurik.</li> <li>Ez dago arlo honi loturiko gehiegizko okupazioa duen zerbitzurik.</li> <li>Udal gizarte zerbitzuen eta gainontzeko zerbitzuen arteko harremana ona da.</li> <li>2011ean udalak 6,43 €/biztanleko zuzendu zituen nazioarteko elkarlaguntzako jardueretara.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Emakume eta gizonen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko neurriak bultzatu.</li> </ul>
<b>2.4. Berariazko gizarte politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago udaletxean berdintasun arloko berariazko zerbitzurik.</li> <li>Ez da etorkinei zuzenduriko aukera berdintasunerako berariazko politikarik garatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Teknologia berrien eskuragarritasuna zein egoeran dagoen aztertu eta dagozkion hobekuntzak ezarri.</li> </ul>
<b>2.5. Gizonezko eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak 2012ko udal tasen hedakuntza politika garatu du ekonomi baliabide urriko pertsonentzako: ur, saneamendu, hondakin, OHZ eta kirolaren jarduterako hobariak tasetan.</li> </ul>	
<b>2.6. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irisgarritasun Plana dago 2007az geroztik. 2009an irisgarritasun egokia duten udal ekipamendu eta eraikinak UT21 Nerbioi-Ibaizabalen batez bestekoaren oso gainetik dago.</li> <li>Emakumeen langabezia tasa 2011ean Bizkaiko eta EAeko batez bestekoen azpitik dago eta UT21ekoaren gainetik.</li> </ul>	
<b>2.7. Genero berdintasuneko politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrriak ez du gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko berariazko politikarik garatzen. Ez du Berdintasun Planik.</li> <li>2010ean erregistratutako kontratu mugagabeak %8,2koak izan ziren, eskualde batezbestekotik portzentaje-puntu bat azpitik.</li> </ul>	
<b>2.8. Bizikidetzeta eta herritarren segurtasuna</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago Arrankudiagari buruz herri gatazkatsua denik esaterik. Udalerrian gizarte kohesio maila egokia dago.</li> </ul>	
<b>2.9. Ekipamenduak eta osasun langileak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>2010ean ez dago udalerrian ibilgailuek harrapatutako oinezkoak erregistraturiko istripurik.</li> <li>Mediku kontsulta dago baina ez farmaziarik.</li> </ul>	
<b>2.10. IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago ADSL konexiorik ez eta zuntz optikozko transmisio kablerik. Hala ere etxeetan konexiorik badagoela uste da.</li> <li>Banku eta posta zerbitzuak nahikoatzat jotzen dira.</li> </ul>	

### 3. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>3.1. Hezkuntza eskaintza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza eskaintza haurreskolak eta lehen hezkuntzak osatzen dute. Gainontzeko hezkuntza zerbitzuak (bigarren hezkuntza, EPA, prestakuntza zentroak, etab.) gertuko udalerriek eskaintzan dituzte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Haurreskolaren plaza kopuruaren etorkizunerako beharra aztertu eta eskakizunak luzatu dagokion erankundeari.</li> </ul>
<b>3.2. Hezkuntza eskaera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Haur eta lehen hezkuntzan matrikulatutako ikasle kopuruaren eboluzioa hazkorra izan da urteetan zehar.</li> </ul>	
<b>3.3. Eskaintza-eskaera balantzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza publikoaren eskaintza askitzat jotzen da nahiz eta azpimarratu beharra dagoen haurreskolak plaza mugatuak dituela (9 guztira).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskararen inguruko udal politiken arloan ahaleginak handitu.</li> </ul>
<b>3.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza mota ororen eskaera hazkundera dagoela ikusten da, 5-9 urte bitartekoan salbu. Honek ez du azpiegitura berriren beharrik ekarriko.</li> <li>Biztanleen artean lehen mailako eta lanbideari loturiko ikasketak dauzkatenak gailentzen dira. Sektore honek eskualdeak dituenen antzeko zifrak ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskararen Biziberritze Plana berrikusi eta euskarak gizartearen duen erabilera sendotu Plan berriak jasoko dituen neurriak udalak hezkuntza, kultura eta aisiako arloetan garatzen dituen beste ekintza batzuekin koordinatuz.</li> </ul>
<b>3.5. Euskalduntze maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko biztanle euskaldun gehien dituzten herrien artean hirugarrena da.</li> <li>Helduen artean euskararen ezagutza handia den arren kalean gehien mintzatzen dena gaztelera da.</li> </ul>	
<b>3.6. Ekipamendua eta baliabideak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola inguruan guraso euskaldunen sarea sortu da. Bere helburua da euskararen erabilera semealabei exenplua ematea.</li> </ul>	
<b>3.7. Udal politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>2011 urteaz geroztik euskara ikastaroak jarri dira martxan udalak sustatuak.</li> </ul>	
<b>3.8 Euskara udal jardueran</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerririk euskara teknikaria eta Euskara Biziberritzeko Plana dauzka (2008-2012).</li> <li>Ez dago etorkinik euskarara hurbiltzeko berariazko programarik.</li> <li>Ez dago gazteei zuzenduriko euskaraz zuzenean eginiko jarduerarik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Administrazioan egiten den euskararen erabilera normalizatu Euskararen Erabilera Planak jasotzen dituen neurriak sendotuz eta hautematen diren hesiak gaintzea ahalbidetzen duten neurri berriak bilatuz.</li> </ul>
<b>3.9. Euskara eta kultura</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal barnean euskara erabiltzeko Plana dago (2008-2012).</li> <li>Udal jardueran gaztelera da nagusi.</li> </ul>	
<b>3.10. Kultura ekipamendua eta horien erabilera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan (7 udaletxe) hizkuntza, etnografi eta kultur ondarearen bilketa eta zabalkunde lan handia burutzen ari da.</li> <li>Kultur ekipamendua anitza baina ez nahikoak, tokiko gobernua kudeatua.</li> </ul>	
<b>3.11. Kultura jarduerak eta partaidetza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Aitzitik, mantentze gimnastika egiteko eta ikasteko egoitzen, hala nola liburutegi baten, eskaera dago. Ikastaro berrien eskaera ere dago.</li> <li>Udalak buruturiko kultur jardueren egitaraua une puntualetara mugatzen da, Gizarte Etxetik programatutako eskaintza salbu, zeina jarraia den.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kultur ekipamendua eta jarduerak programa berrien sorkuntza bultzatu, dagoen eskaera asebetete arte.</li> </ul>
<b>3.12. Herritarren dinamika kulturala</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrek kultur ekitaldiei ematen dieten erantzuna ona dela uste da.</li> <li>Udalerririk hainbat elkarte dauzka. Horrek haien eskuduntza arlo desberdinetan edozein ekimen martxan jartzea errazten du.</li> </ul>	
<b>3.13. Kirol ekipamendua eta horien erabilera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerririk kirol ekipamendua desberdinak ditu, estaliak zein estali gabeak. Hauek nahiko ekipatuta daudela jotzen da nahiz eta erabilera kontrolari dagokionean hainbat arazo egon.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jarraitu kirol ekipamenduen koordinazioan eta erabilera kontrolan lanean, erabilera handitzen dela bilatuz.</li> </ul>
<b>3.14. Kirol jarduerak eta partaidetza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekipamenduen erabilera altua da erabilera anitzeko pisten eta bolatokiaren kasuan izan ezik.</li> <li>Herritarren aldetik igerileku baten eskaera dago.</li> </ul>	









<i>Azpihermua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<b>3.15. Herritarren kirol dinamika</b>		<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalerrriaren eskaintzaren atal handi bat 3 kirol elkarteren bidez antolatzen da.</li><li>• Udalerrrian sustatzen diren kirol jardueren aurreko herritarren partaidetza eta erantzun maila oso egokia da eta ez dago biztanleen aldetik eskaerarik.</li></ul>	










## 4. ETXEBIZITZA

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>4.1. Etxebizitza-parkearen ezaugarriak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitza lurzoruaaren etxebizitza dentsitatea auzotik auzora aldatzen da. Sustapen berrienak dentsitate txikiko etxeak zein blokeak dira.</li> <li>• Alokairuzko etxebizitza parkearen portzentaia oso baxua da, ia ez dago.</li> <li>• Udallerriak ez du babestutako etxebizitza parkerik.</li> </ul>	<p><b>Udal eta gaidiko eskumeneoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Saltzeko eta alokatzeko den babestutako etxebizitza eskaintza sustatu.</li> </ul> <p><b>Udalaz gaidiko eskumeneoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Alokairuko etxebizitzari bultzada eman.</li> </ul>
<b>4.2. Etxebizitzen antzintasuna eta zaharberritzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala alokairuan dauden bi etxebizitzaren jabe da.</li> <li>• Gaur egun hutsik dauden etxebizitzak 97 dira (etxebizitza parkearen %21,7a).</li> <li>• Gaur egun gutxi gora behera 10 etxebizitzek zaharberritze beharra dute. Batzuk erdigunean daude.</li> </ul>	
<b>4.3. Higiezin eskaintza: etxebizitzen eraikuntza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010ean, 267 etxebizitza zeuden exekutatzeko pendiente .</li> <li>• Azken sustapenetako etxebizitza batzuk saldu gabe geratzen dira oraindik.</li> <li>• 2003 eta 2010 bitarte emandako etxebizitza berrien lizentziak gutxituz joan dira. Nabarmenezkoa da 2009 eta 2010 bitarte gertaturiko %90eko murrizketa.</li> </ul>	
<b>4.4. Etxebizitza beharra eta eskaera eta eskaintza-eskaeraren balantzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak udal babeseko erregimenean, ez tasatua, dauden etxebizitzak sortzea aurreikusita dauka</li> <li>• Udalak biztanleriaren etxebizitza eskaeraren inguruko bi azterketa egin ditu, azkena 2012an (egun martxan dago) eta aurrekoa 2010 bukaeran-2011 hasieran. Jasotako eskaerak udal babeseko etxebizitzaren ingurukoak dira nagusiki.</li> <li>• Exekutatzeko pendiente dauden etxebizitzaren kopurua biztanleen etorkizuneko eskaera betetzeko nahikoa dela uste da.</li> <li>• Etxebizitza prezioa inguruko gainontzeko herrietako berdintsua dela uste da.</li> <li>• Ez dago etxebizitza hutsaren tratamenduari zuzenduriko politika edo programarik.</li> </ul>	
<b>4.5. Erakunde arloa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarrean dagoen udal planeamenduak eskaerari erantzuteko adinako bolumen eta motako etxebizitzak exekutatzeko aurreikusten du.</li> </ul>	







## 5. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA






Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>5.1. Eredu ekonomikoa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Industri sektorea ekoizpenaren jarduera garrantzitsuena da, ahultzearen aldeko joerarekin, ekonomiaren tertziarizazioa eta egungo ekonomi krisiaren egoera dela eta.</li> </ul>	<p><b>Udal eta gairako eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Enpleguaren sustapenerako eta ekonomi garapenerako eskualdeko zerbitzu mankomunatuak, zerbitzu hau ez duten udalerrientzako, sortzeko aukera aztertu.</li> <li>✓ Poligonoetako egoera aztertu eta bertan enpresak ezartzea bultzatu.</li> <li>✓ Lanpoltsari kanporako ikuspegia emanaz tokiko enpresek lan poltsa erabiltzea bultzatu, tokiko enplegarritasuna bultzatzearen.</li> <li>✓ Enplegu eske dabilen sektoreen beharrei egokitutako prestakuntza erraztu.</li> <li>✓ Lanbide heziketako eta prestakuntza jarraia eskaintzen duten zentroekin elkarlanean aritu enpleguaren eskaintza eta eskaeraren arteko harremana optimizatzeke.</li> <li>✓ Emakumea lan munduan sartzea bereziki indartu.</li> </ul>
<b>5.2. Jarduera ekonomikoaren maila orokorra</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Per capita Barne Produktu Gordin moduan adierazitako ekonomi errendimendu konparatiboak 1996 eta 2005 bitarte joera hazkorra izan zuen. 2008an eskualdeko eta lurralde historikoko batez bestekoak baino zifra askozaz handiagoa zuen (80.573€).</li> </ul>	
<b>5.3. Familiaren ongizate ekonomikoa maila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduera sektore desberdinek Balio Erantsi Gordinari egiten dioten ekarpenaren eboluzioak ekonomi jardueraren bigarren sektorea argi gailentzen dela erakusten du. Horrekin batera, hirugarren sektorea pixkanaka hazten doa, eraikuntza sektorea erori da eta nekazaritza sektorea ia desagertu da.</li> </ul>	
<b>5.4. Lehengo sektorea. Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Biztanleen kopuruarekiko establezimenduen saldo garbiaren eboluzioa oso irregularra izan da.</li> <li>Establezimendu berrien sorkuntza tasak beheranzko joera du.</li> <li>Pertsonako errenta totala hazten joan da; UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaiko balioen gainetik egon da beti.</li> </ul>	
<b>5.5. Lehenengo sektorea. Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago eskura lehen sektorea eratzen duten establezimendu kopuruari buruzko daturik.</li> <li>1989 eta 1999 bitarte nekazaritza azalera hazi zen bazkarako lursailak eta nekazaritzarako azalera erabilgarria nabarmenki ugartu egin zirelako.</li> <li>Azienda unitate guztietan murrizketa gertatu da.</li> <li>Oro har, ez dago gaur egun eskualde mailan belaunaldi ordezkapenik.</li> </ul>	
<b>5.6. Bigarren sektorea. Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Basogintzako azpisektorea gainbehera joan da 2010 urteaz geroztik UT21 Nerbioi-Ibaizabal osoan.</li> <li>Udalak uste du lehen sektorean dagoena mantendu behar dela, lagundu behar zaiola sektore honi.</li> </ul>	
<b>5.7. Bigarren sektorea. Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Industri sektoreak Balio Erantsi Gordinari egindako ekarpena 2008 urtean %54,87koa da.</li> <li>Eraikuntza sektorea amildu ondorengo pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabalekoa baino txikiagoa da (%3,57 eta %12,69 hurrenez hurren).</li> <li>Establezimenduen %60ak zerbitzu sektorekoa da. Portzentai hau Bizkaiko eta UT21eko batez bestekoen azpitik dago.</li> </ul>	
<b>5.8. Zerbitzuen sektorea. Sektorearen egitura.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Txikizkako merkataritza supermerkatuak eta frutategiak eratzen dute.</li> <li>Zerbitzu sektoreak ekonomi jardueraren %40,22 eratzen zuen 2008an. Bere pisua UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaian sektore honek duen pisuaren oso azpitik dago.</li> <li>Turismo ostatuak duen pisua oso txikia da.</li> </ul>	

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>5.9. Zerbitzuen sektorea.</b> <b>Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrankudiagak eta Nerbioi-Ibaizabal eskualdeak ez dute bixitarien arretarako turismoko informazio punturik.</li> <li>• Udalerrian egiten diren gau igarotzeak lan arrazoiek bultzatuak dira.</li> <li>• Azpiegitura turistikoa nahikotzat jotzen du udalak.</li> <li>• Udalak ez du gailentzen udala ikuspuntu turistikotik bultzatzea.</li> </ul>	
<b>5.10. Turismo eta ostalaritza sektorea.</b> <b>Azpiegitura turistikoa.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010ean jardura tasa (%48,22) 2001 eta 2006koak baino handiagoa zen, nahiz eta urte horretan UT21 Nerbioi-Ibaizabalek zuena baino txikiagoa izan (%49,51).</li> <li>• Emakumeen jardura tasa (%43,91) 2001 urteaz geroztik etengabe gora joan da, 2010ean UT21 Nerbioi-Ibaizabalen batez bestekoaren antzekoa eta Bizkaiko eta EAEko tasak baino handiagoa izanik.</li> <li>• 2006an okupazio tasa eskualdeko batez bestekoa baino apur bat handiagoa zen baina Bizkaia eta EAEko baino txikiagoa.</li> </ul>	
<b>5.11 Turismo baliabide eta erakargarritasunak.</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Okupazioari dagokionean, 2010ean zerbitzuen sektorea da pisu handienekoa (%70,94) eta jarraian industriarena (%15,49). Lehen sektorearen portzentaia ia hutsaren hurrengoa da (%1,45), baina UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEkoak baino zertxobait handiagoa.</li> <li>• Langabezi tasak goranzko eboluzioa jasan du azken lehen lau urteetan.</li> </ul>	
<b>5.12 Biztanleria aktiboa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011ko azken hiruhilabeteen langabezi tasa %10,29koa zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabalaren (%12,49), Bizkaikoaren (%14,78) eta EAEkoaren (%13,49). batez bestekoak baino txikiagoa.</li> <li>• Enplegu eskatzaileetako %41a 45 urtetik gorakoa da. Generoaren arabera, eskatzaileen %55 emakumeenak ziren eta %45 gizonak.</li> </ul>	
<b>5.13 Biztanleria okupatua</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerrian lan egiten duten langileei dagokienean, Sozial Segurtasuneko afiliazio tasa azken urteetan txikituz joan da, 2010ean %81,97ean zelarrik, eskualdeko batez bestekoaren (%58,02) gainetik.</li> </ul>	
<b>5.14 Langabezia</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizonen afiliazio tasak (%129,29) emakumeenarena (37,47%) baino askoz handiagoa izaten jarraitzen du.</li> </ul>	
<b>5.15 Kontratazioa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalean bizi direnen afiliazio tasa 2010ean (%43,35) 2009koa baino zertxobait altuagoa da, bai UT21eko baino bajuagoa.(44,07%).</li> <li>• Udalean bizi direnen afiliazio tasaren genero arteko leizea aurrekoa baino txikiagoa da (%51,58 eta %35,24).</li> </ul>	
<b>5.16 Laneko mugikortasuna, nork bere buruari eustea eta autosufizientzia</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mila biztanleko kontratu kopurua 391koa da, eskualdekoa baino handiagoa.</li> <li>• Kontratuen %37,78 30-44 urte bitarteko pertsonari egin zaie, eta %24,44 24-29 urte bitartekoei. Kontratuen %75,61 gizonetako eta %24,39 emakumezkoenak.</li> <li>• Kontratu errotazioaren indizea, UT21aren batez bestekoaren azpitik dagoena, 2010ean berriro behera egin du (2,18 kontratu/pertsonako).</li> </ul>	
<b>5.17. Enplegu eta prestakuntza politikak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanaren autokontentzio tasak gora egin du 1996-2001 aldian, 2001ean %26 izanik, Bizkaia eta EAEko batez bestekoak baino txikiagoa (%39,42% eta %48,63%).</li> <li>• Autosufizientzia tasak behera egin du 1996-2001 aldian, eskualdekoaren antzera.</li> <li>• Ez dago eskualde mailan enplegu sorkuntza eta orientaziorako zerbitzurik.</li> <li>• Udalak ez du orientazio, prestakuntza eta enpleguari loturiko politikarik landu.</li> </ul>	





## LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


### 6. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>6.1. Lurralde eremua</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio aldetik, eta Lurraldearen Antolamendu Artezpideen arabera, Laudioko eremu funtzionalari dagokio.</li> <li>• Bide ardatz nagusiak AP-68 autopista Vasco-Aragonesa (Bilbao-Zaragoza), BI-4521 (Ugao-Miraballeseetik Zollora) errepidea eta BI-625 (Urduña-Orduñatik Bilbaora). Trenbide ardatzei dagokienean, Bilbao-Madrid linea.</li> <li>• Azpiegitura linealak konektagarritasun ekologiko, sozial eta paisajistikoaren aldetik eragin gehien izan dutenak dira eta herrigunea bitan zatitzen dute.</li> </ul>	<p><b>Udal eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udal planeamenduaren berrikuspenarekin loturik ondorengo helburuak hausnartu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Behar gehien duten auzo eta guneean hirigintza erreformak exekutatu.</li> <li>✓ Zaharberritu gabe dauden arkitektura ondarearen elementuen zaharberritzea.</li> <li>✓ Hiri planeamenduan iraunkortasun irizpideak (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, ingurumen eraginak, etab.) txertatzen jarraitu.</li> <li>✓ Nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruaren babes jarduerak garatu.</li> <li>✓ Eraikuntzan eta zaharberritze lanetan energi eraginkortasuneko irizpideak txertatu.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Nerbioiko parke lineala ekologi korridore gisa bultzatu.</li> </ul>
<b>6.2. Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraldaketa dinamika nagusienak landatutako baso aloktonoek, etxebizitza zein industri eremuen garapenak eta komunikabideek eragin dituzte.</li> <li>• Dinamika urbanistikoko mantsoa: egonkortu gabe geratzen da lurzoru urbanizagarrian dagoen industri azaleraren %57, hiri eta etxebizitza lurzoruaren dauden etxebizitzaren %47, etxebizitzetarako lurzoru urbanizagarrian dauden etxebizitzetatik 100% eta etxebizitzetarako lurzoru ez urbanizagarrian dauden etxebizitzetatik 9%.</li> <li>• Lurzoru ez urbanizagarriak udalerrien zati handi bat betetzen du (bere azaleraren %95). Udalerriko lurzoru ez urbanizagarriaren %79 baso erabilerakoa da.</li> <li>• Etxebizitza lurzoruaren pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko txikienetarikoa da.</li> <li>• Hiri lurzoru industrialak ia guztik egonkorturik dago.</li> <li>• Lurzoruaren artifizializazio handiena haran honoan gertatu da. Eremu honek komunikazio azpiegiturak, etxebizitzak, zuzkiduren eta, industrien finkapen lekua etab. jasotzen ditu.</li> <li>• Mendi azalera nagusia izaera pribatuko da, egurretarako pinudiz osatutako baso landatuaz eratua. Gainontzeko baso lurzoru Herri Onurako mendiak dira (638,11 ha).</li> <li>• Nekazaritza jarduera txikia da (lurzoru ez urbanizagarriaren %30 nekazaritza eta abeltzaintzarakoa eta landazhabala da).</li> </ul>	
<b>6.3. Hiri egitura eta ehundura</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 hirigune eta 4 landa nukleo, distantzia handiak daudelarik haietako zenbaiten artean.</li> <li>• Sakabanatutako etxebizitzetako biztanleriaren garrantzia handi samarra da eta Nerbioi-Ibaizabaleko lurraldeak duen batez bestekoa baino askozaz handiagoa.</li> <li>• Udalerriak ez du erdigune historiko edo merkataritzakorik.</li> <li>• AASSen berrikuspenak (2009 urtea) ekipamendu publikoetara bideratutako hirigintza azalera zabaltzen du.</li> <li>• Parke, lorategi eta hiriko gunek berdeak hiri lurzoruaren %13 hartzen dute. Portzentai hau UT21</li> </ul>	
<b>6.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak</b>			






Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>6.5. Hiripaisaia eta gune hondatuak</b>		<p>Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren oso azpitik dago baina landa izaerako udalerriek izan ohi dutenarekin koherentzia gordetzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eremu libreen sistema orokorrak legea markatutako estandarrek xedatzen dutena (5 m<sup>2</sup>/bizt.) etetzen du.</li> <li>• Hiri parkeek eta eremu berdeek ez dute euren artean konektaturik dauden sarerik eratzen baina bai nekazaritza eta baso lurzoruarekin konektaturikoa.</li> </ul>	
<b>6.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago hondatutako eremu aipagarririk.</li> <li>• Historia, arkitektura eta arkeologia ondare zabala du, toki mailan interesa duena eta indarrean dagoen udal planeamenduaren tokiko Arkitektura Intereseko Eraikinen Katalogoan jasoak daudenak. Beraz, araututa daude udalerrri mailan interesa duen ondarea berreskuratzea zuzenduriko dirulaguntzak.</li> <li>• Bilbao Metropolitarrako Lurralde Zatikako Planaren arabera Arrankudiaga "lehentasunezko nekazaritza garapenerako udalerrri" gisa definitzen da.</li> </ul>	
<b>6.7. Lurralde eta sektore antolamendua</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• LZPak Nerbioiko Parke Linealaren exekuzioa aurreikusten du. Parke hau haraneko herriak lotuko dituen korridore ekologiko, paisajistiko eta aisiarakoa da eta Pagasarri-Ganekogortaren ingurumenaren aldetik birbaloratzea proposatzen du.</li> <li>• Nekazaritza eta Basogintzako SLP-aren arabera, balio estrategiko handiko lurzoruak UT21en batez bestekoaren oso gainetik daude. LAP honek ez du Ingurumen Hobekuntzako eremurik identifikatzen.</li> </ul>	
<b>6.8. Hiri antolamendua</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomi jardura eta merkataritza ekipamenduetarako lurzoru publikoaren eraketarako LAPak udalerrria "lehentasunezko intereseko" gisa kategorizatzen du ekonomi jardueren lehentasunezko kokapenerako.</li> <li>• Udalak ez du antzematen goi mailako planeamenduak garrantzi handiko eragin negatiborik duenik udalerrian.</li> <li>• Egungo AASSak eremu libreak eta berdeguneak, dagoen azaleraren arabera, %24 zabaltzen dituzte.</li> <li>• AASSek Uholdeen Plan Integralean urek azpian har ditzaketen eremuetan egingo diren garepenei begira detaileko azterketa hidraulikoak egingo direla eta prebentzio neurriak exekutatu direla xedatzen dute.</li> </ul>	
<b>6.9. Antolamenduan eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• AASSek egun uholde arrisku handien duten lurzoru ez urbanizagarriko guneak Birsokuntzako eta Hobekuntzako arloan sartu behar direla xedatzen dute, ingurumen azpiegitura handi bat eratzea zuzendua, zeinak Nerbioiko Parke Lineala pixkanaka garatzea ahalbidetuko duen.</li> <li>• Udal planeamendua berria da, eta goi mailako planeamenduetako irizpideak barneratzen ditu.</li> <li>• Indarrean dagoen udal planeamenduak berariazko iraunkortasun irizpide gutxi baitaratzen ditu lurraldearen antolamenduan eta arautzean, eta eraikuntan.</li> <li>• Ez dago energi eraginkortasuneko ziurtagiririk duen etxebizitzarik (2010).</li> </ul>	








## 7. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
<b>7.1. Natura eta paisana balioak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Landaredian Pinus radiataren baso landatuak dira nagusi (eremuaren %36).</li> <li>Habitat eta inguru mota desberdinetan aberatsa da, udalerrria oso zabala delako eta Ganekogorta Mendia (garrantziazko natur eremua) bere baitan dagoelako.</li> <li>Batasunaren intereseko 9 habitat daude (BIH), horietatik 3 lehenetsuneko interesekoak izanik.</li> <li>Interes bereziko mehatxatutako floraren espezie bat identifikatu da, Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan sartuta dagoena.</li> <li>Flora aloktonoaren inbasio maila altua. 47 espezie aloktono desberdin identifikatu dira, Pampako belarrak duen inbasio maila ertaina izanik.</li> </ul>	<p><b>Udal eskumenekoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Natur ingurunearen potentzialki kutsatzaileak diren jardueren kontrol eta jarraipena, eta bereziki, ibaian eragina dutenena.</li> <li>✓ Udalerrriak dituen natur potentzialtasun eta balioen azterketa eta inbentariatzea (planeamenduaren berrikuspenaren esparruan egitea posible da)</li> <li>✓ Arautegi eta legeen bidez babestuta dauden habitat eta espezieen babes eta kontserbazioa bermatzeko neurriak hartu.</li> <li>✓ Landare inbaditzaileak suntsitzeko neurriak ezarri.</li> <li>✓ Ingurumenaren kontserbaziorako eta hezkuntzarako jarduerak ugaritu herritarren inplikazio eta elkarlaguntza bilatuz.</li> </ul>
<b>7.2. Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Arrankudiagako 10 ikus arrotako bakar bat ere ez dago proposaturik Paisaje Katalogoen Aurreproiektuan katalogatua izateko.</li> <li>Kurzetako Urtegia (Zollo) dago, EAEko Hezeguneen Sektorekako Planeko III Taldeko hezegunea. Honek LAParen arabera balorazio ekologiko ertaina dauka.</li> <li>Ganekogorta Mendiak baso sail zabalak dauzka. Azpimarragarriak dira bertako hostozabalez osatutako hainbat gunek, garrantzitsuak diren zenbait fauna elementu egotea ahalbidetzen dutenak.</li> <li>Nerbioi ibaiak, Arrankudiagatik igarotzerakoan, 2011 urteko QBR osagai hidromorfologikoaren adierazlearen arabera kalitate txarra izan ohi du.</li> </ul>	
<b>7.3. Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Larunbe errekek egoera hidromorfologiko ona dauka.</li> <li>Plan Hidrologikoak udalerriko Nerbioi zati osorako birlandaretze neurriak proposatzen ditu.</li> <li>Udalerrian 7 geologi intereseko puntu identifikatu dira. Puntu guztiek hauskortasun txikia dute eta interes ertain-txikia.</li> <li>Ez dago udalerriko biodibertsitatearen ez natur ondarearen inbentario zein azterlanik nahiz eta Ganekogorta Mendiari buruzko azterlan bereziak egon.</li> <li>Ekonomi jarduerak natur inguruan eragin nabarmena dute.</li> <li>Industria eta etxebizitzaren hazkuntza biztanleriaren hazkuntza endogenoarekiko proportziorik gabea izatea, azpiegitura linealen ugaritzea, Ganekogorta Mendiaren jende ugari samar ibiltzea, bertan parke eoliko bat eraikitzeak aukera, frogatutako inbasio portaera duten flora eta fauna aloktonoaren espezieen sakabanaketa, baso hustiatze intentsiboa eta lurzoruen kutsadura dira inguru biotiko eta paisajistikoak jasotzen dituen eragin nagusiak.</li> </ul>	
<b>7.4. Babestutako naturguneak</b>			

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
